ERRENTERIAN HAMAIKA KOLORE

MUNDU ANITZEKO ESKULANAK

Plastikako, Ikusizko eta Ikus-entzunezko Hezkuntza Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan garatzeko

4 Eskulan proposatuko dira, 4 jatorri eta kultura desberdinetakoak, 4-ak batera egiteko.

ARLOA: Plastikako, Ikusizko eta Ikus-entzunezko Hezkuntza

MAILA: Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza

SAIO KOPURUA: 2

https://youtu.be/uRIWPB1k2m0

MATERIALA (unitate bat egiteko)

Kolore urdin edo more kartulina zatia 19x13 cm

Erliebe pintura urre kolorekoa

Folio papera horia ⅓

Urre kartulina 2X14,5cm edo 1X14,5cm

Soka marroi fina 15cm

Birziklatutako materiala

Komuneko paper kartoi hodia: 1

Kartoi zati bi laukitxo

Kartulinaren ordez erabili daitezke pareta paper koloretsuak, bikoiztuta eta itsatsiak, bi aldeetatik koloreak ikusteko. 19X13cm bi zati.

Bestelakoak

Arkatza, guraizeak, kuterra, erregela, lekeda, lekeda beroa eta pistola.

https://youtu.be/xTE7fP_9G_o

MATERIALAMATERIALA (unitate bat egiteko)

Kolore gorri kartulina zatia 15x13 cm

Folio papera horia ⅓

Artile gorri edo horia

Soka marroi fina 12cm

Birziklatutako materiala

Komuneko paper kartoi hodia: 1

Kartoi zati bi laukitxo

Kartulinaren ordez erabili daitezke pareta paper koloretsuak, bikoiztuta eta itsatsiak, bi aldeetatik koloreak ikusteko. 15X13cm bi zati.

Bestelakoak

Arkatza, guraizeak, kuterra, erregela, lekeda, lekeda beroa eta pistola.

https://youtu.be/aa7TM0cpAB8

MATERIALA (unitate bat egiteko)

Kartoizko arrautzontzi 12 zatitxo gutxienez.

Margo akrilikoak eta POSCA-k

Soka marroi fina 24cm

Birziklatutako materiala

Komuneko paper kartoi hodia: 1

Gaileta kutxa kartoiak

Bestelakoak

Arkatza, guraizeak, kuterra, erregela, lekeda, lekeda beroa eta pistola.

https://youtu.be/wOE3db9Frt4

MATERIALA (unitate bat egiteko)

Kolore berdea kartulina 20X4cm 12 zati

Kolore berde iluna kartulina 16X3cm 6 zati

Orrialde edo folio horia 9X2,5cm 9 zati

Errotulatzaile berdea

Errotulatzaile laranja

Soka marroi fina 12cm

Birziklatutako materiala

Artilea laranja edo horia

Esne botila tapa

Kartoi zati borobila

Bestelakoak

Arkatza, guraizeak, kuterra, erregela, lekeda, lekeda beroa eta pistola.

Proposamenaren justifikazioa

2 saioko sekuentzia didaktiko honek formen eta objektuen akaberetara hurbiltzea proposatzen du, eta 2 dimentsiotik hasita 3.dimentsioa lortzea dauka helburu. Halaber, lan hori baliagarri izatea formen eta eraiketen funtsezko eginkizuna duen arte-adierazpenak, eta hauen kutsu kulturala ezagutzeko, era horretan ikasgaiaren curriculumaren barruko oinarrizko zati bati erantzuna ematearren.
Hartarako, lehenik, faroltxo arabiarren, txinatarren, alebrijeen eta eguzkiloreen jatorria eta erabilera aztertuko da, hurbilketa kulturala eta artistikoa egitea planteatzen da; ondoren, arabiar, txinatar, mexikar eta euskal kulturen eginkizun garrantzitsua izan duten adierazpen- eta komunikazio-erak aztertzea, eta, azkenik, ikasitakoa aplikatzea eta egindako lana baloratzea.
Oinarrizko konpetentziak neurri handiagoan edo txikiagoan garatuko dituzten bi jardueratan aurkezten da sekuentzia.

Testuingurua

Objektu bat, kasu honetan,proposatutako lau kontinenteetako, lau eskulan, hautematen dugunean osotasun gisa ikusten dugu, non bakoitzaren konfigurazioaren eta kultur kutsuaren sentsazio isolatuak, kolorea, testura, formak, eta abarrak presente dauden. Eta, kultur kutsuaz bakarrik hitz egiten dugunean, objektuen azalen ezaugarri batez hitz egiten ari gara, zeinak formak eta haiek lortzeko egindako eraikuntza, ezagutzeko aukera ematen duen. Ezaugarri hori ikusmenekoa da, inguruan dugun guztiari begiratzean hautematen da, baina askotan ezagupenezkoa ere bada. Objektuen formaren eraikinean begiradaz gain, bere inguruan dagoen istorioa, sinbologia eta erabilera, garai guztietan, eta lurralde guztietan erakarri dute artisten jakin-mina, ideiak adierazteko eta komunikatzeko tresna baliagarria baita, balio kulturala.

Arazoa

Begiratu inguruan dituzuen gauzek zein forma duten, eta nola izan diren eraikiak paperetik 3. dimentsiotara. Gure jantziak, inguruko eraikinak, altzariak,... Objektu orok berezko forma du eta, sarritan, osatuta dagoen parteen berezitasuna ere bada. Eraikuntza, oso tresna baliagarria da ideiak adierazteko eta komunikatzeko orduan. Komunikazio artistikoan. Ausartzen al zarete zuek sortutako hurruneko

objektura hurbiltzen, kultur aniztasunaren sentsazioak komunikatzera, era horretan hartzailearekin elkarrizketa kulturalari ekiteko eta, elkarrizketa horri esker, ikusleak, zuen ekoizpenak ikusita, berezko emozioak eta beste kulturekin hartuemanak garatu ahal izan ditzan?

Xedea

Bi dimentsiotan marraztutako diseinuari buruzko zein haren eraldaketaren erabilerari, hirugarren dimentsioa, eta dagokion kulturan dituen aplikazioei buruzko gogoeta egitea.

Ataza

Beraien herrian, Errenterian egingo den festan parte hartzea.

Maiatzaren 21 ean, Aniztasunaren nazio arteko eguna- ren inguruan burutuko diren zenbait eginkizunen artean, bata, herriko dendak kultura anitzetako objektuekin apaintzea izango da, eta hau izango da, hain zuzen, beraiek sortuko dituzten objektuen helburua.

Apaingarriak prestatzeaz gain, kultur aniztasunaren aberastasunaz jabetuko dira, eta lana aitzakia izango da dauden kultura anitzei jakin-minez eta errespetuz hurbiltzeko. Arte-proiektu bat gauzatzea, eta gero ere herriko denden ikusleihoetan ikusi ahal izatea, museo baten antzera.

Lanaren helburua betetzeko hainbat eginbeharren antolakuntza burutu beharko dute. Helburuak ere produkzio handia sortzea eta egindakoaren pilaketa eta banaketa egokia baitira, eta ez soilik sorkuntza.

Oinarrizko konpetentziak:

Zeharkakoak:
Komunikazio-konpetentzia eta konpetentzia digitala. Jarduerak: 1
Ikasten eta pentsatzen ikasteko konpetentzia. Jarduerak: 1, 2

Elkarbizitzarako konpetentzia. Jarduerak: 1,2
Ekimenerako eta ekiteko espirituarako konpetentzia. Jarduerak: 1,2

Izaten jakiteko konpetentzia. Jarduerak:1,2

Berariazkoak:
Arterako konpetentzia. Jarduera guztiak.

Helburu didaktikoak:

Formen eta objektuen kanpoko itxuraren akaberaren araberako kultur aniztasunaren irudikapen ezagutza eta jakin-mina agertzea.
Arte-irudi eta adierazpenetan askotariko azal eta akaberekin egindako lanaren berezko ezaugarriak identifikatzea.

Kultura anitz eta hurrunekin, artearen bidez hurbiltzea, eta errespetuz ezagutzera.
Taldekako kate lanan ekoizpen lana egiteak eskaintzen dituen komunikazio-aukerak deskubritzea.

Irudi eta ekoizpen artistikoak asmo batez sortzen direla eta eginkizun soziala dutela ulertzea.
Arte-proiektuak garatzeko informazio-bilaketa eraginkorrak egitea.
Objektu bat sortzeko proiektu bat garatzea, jakin zein den bere esanahia, nondik datorren, zertarako erabiltzen den.

Arte-prozesuetan taldeko lanak zer garrantzi duen baloratzea. Kasu honetan gehiago, produkzio lana handitzeko helburuz, arte lana, kate lana bihurtu beharko baitute. Beraz lanaren banaketa, antolakuntza eta taldearen eraginkortasuna erabat lortu behar dute.

Edukiak:

Objektuak ezagutza eta komunikatzeko tresna gisa.
Elementuen eta baliabideen aldaketa sistematikoa, ditugun xedeei gehien egokitzen zaien ondorioa lortzeko, paperetik, bolumena daukaten objektuak egiteko.
Formen arteko erlazio-aldaketek eragindako ikusizko aldaketen aurreko baliabideak.
Objektuak erabiltzea dauden bestelako batzuen ezagutza eta hurbiltasun gisa. Ohitura eta kontakizun ugariak eraikitzea hainbat esanahi erabiliz.
Teknologiak esperimentatu eta erabiltzea. Batez ere informazio bilaketak egiteko.
Teknikak eta baliabide materialak identifikatzea irudi eta objektuetan.
Aldaketak deskribatu eta aztertzea.
Ekoizpen artistikoak egiterakoan norberaren ahalmenak gainditu eta aproposagoak diren produkzio atalak identifikatu, eta ez direnak onartzeko prest egotea.
Beste pertsona batzuen ekoizpen artistikoen analisiarekiko eta balorazioarekiko jarrera irekia eta malgua.

Tresnak, materialak eta espazioak erabiltzeko eta kontserbatzeko arauak eta jarraibideak betetzea. Ekoiztutakoaren pilaketa egoki eta erosoa, ondo jasoa izan dadin.
Ongi egindako lanarekiko zaletasuna.

Jardueren sekuentzia:

<table>
<tr><td colspan="2">Hasierako fasea eta garapenaren hasiera</td></tr>
<tr><td rowspan="2">1. jarduera</td><td>1.1. Egin beharreko 4 eskulanen aurkezpena eta helburua.</td></tr>
<tr><td>1.2. Aurreratu beharreko lanak.</td></tr>
<tr><td colspan="2">Garapena eta prestaketa</td></tr>
<tr><td rowspan="2">2. jarduera</td><td>2.1. Kate lanaren antolaketa</td></tr>
<tr><td>2.2. Arte Lanaren antolaketa eta banaketa</td></tr>
</table>

Ebaluazioa

Adierazleak:

Teknika eta baliabide plastikoak eta bisualak modu kontzientean eta nahita erabiltzen ditu emandako helburua ulertu eta eskatutakoa sortzean.
Besteen baliabideak errespetatu eta propioak bilatu eta berrerabiltzen ditu, bere sormen-beharretara egokituta.

Askotariko prozesuekin esperimentatzen ditu, teknologiek eskaintzen dituzten aukerekiko interesa ere agertuta, eta osatutako informazioa ulertu eta barneratu du.

Aztertzen dituen arte-adierazpenetan dauden planteamenduei eta arazoei buruzko galderak egiten ditu.
Ikasgelan egindako lan-prozesua zein taldelanean sortutako antolaketari buruzko soluzioak argudiatzen du.

Lan-proiektuak argi eta bilatzen den helburuari egokituta gauzatzen ditu.
Bere akatsak onartzen ditu eta hobetzeko tresnatzat hartzen ditu.
Norberaren gustuetatik urrun dauden ekoizpenekiko tolerantzia erakusten du.

Taldeko artelanetan konfiantzaz parte hartzen du, norberarenak ez diren ekarpenak errespetaturik.

Tresnak:

Hasierako ebaluazioa

1. jarduera
1.1. Egin beharreko 4 eskulanen aurkezpena eta helburua. Kultura anitzekiko interesa eta bilaketa prozesuko ebaluazioa. Nolakoak dira beste talde batzuek kontatzen dituzten istorioak **1.2.** Aurreratu beharreko lanak. Helburua ulertuz talde lanaren antolakuntza eta partehartzea.
2. jarduera
2.1. Kate lanaren antolaketa Errespetua eta baliabide material eta pertsonalen kudeaketa eta optimizazioa **2.2.** Arte Lanaren antolaketa eta banaketa

Behin lana amaitu ondoren eta helburua zein den kontutan izanik, lanaren antolaketa bere helburua hoberen bete dezan.

MUNDU ANITZEKO ESKULANAK

Plastikako, Ikusizko eta Ikus-entzunezko Hezkuntza Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza

HASIERAKO FASEA

Objektuen kanpoko itxura ikusmen-ezaugarria da, koloreak, testurak, munduko punta batetik bestera eramaten gaituzte. Pentsa dezagun, adibidez, musikan, erraz identifikatzekoa izaten da bere sustraien eratorria, bere kultur jatorria, gure objektuak bezela, itxura du ere, nongoak diren ikus daiteke, baina, beste kulturetaz, beste herrialdetaz zer dakigun ikus dezagun.

1. JARDUERA

1.1 Egin beharreko 4 eskulanen aurkezpena.

Ziur asko inguruan objektu ugari izango dituzue orain. Begiratu horiei. Ezberdinak dira, badakigu zer den bakoitza, objektu bakoitzak bere kolore, akabera edo azala du; baliteke berezko soinurik edo usain bereizgarririk ere izatea. Objektuen azala, itxura eta kolorea, duten eta ezagutzen laguntzen digun kanpoko ezaugarri hori, gehienetan, osatuta dauden herrialdearen eta kulturaren berezitasun bat da. Objektuek garai guztietan erakarri du artisten jakin-mina, ideiak adierazteko eta komunikatzeko tresna baliagarria baita. Arte-ekoizpen batean objektuen itxura nolakoa den erakustea lortzen badugu, gauza asko komunikatu ahal izango ditugu gure ekoizpenen bitartez.

Ausartzen al zarete zuek sortutako hurruneko objektura hurbiltzen, kultur aniztasunaren sentsazioak komunikatzera, era horretan hartzailearekin elkarrizketa kulturalari ekiteko eta, elkarrizketa horri esker, ikusleak, zuen ekoizpenak ikusita, berezko emozioak eta beste kulturekin hartuemanak garatu ahal izan ditzan?

Zehaztuko dugu zer esan nahi dugun «elkarrizketa kulturala» adierazten dugunean. Hauxe nahi dugu:

Beste herrialdeetako objektuen azalen kanpoko itxurari begiratzea, horiek eginda dauden materialei, haien koloreei, testurei, apaingarri eta abarrei.
Horietako azal batzuk erreproduzitzen saiatzea eta askotariko material eta prozedurekin esperimentatzea.

Horri guztiari buruzko gogoeta egitea, horrelako azalek zer komunika diezaguketen ulertzen saiatzeko. Zein den beraien erabilera, kondaira edo sinbologia. Beste kulturekiko errespetuz eta jakinminez hurbiltzea, ezagutzak, aberasten gaitu.

Lau proiektu dira, lau eskulan, kolore eta apaingarrietan askatasunez lana egingo duzue, baina helburua finkoa da, denden ikusleihoetan zintzilik jarri behar dira. Beraz, noski apaingarri izatea da helburua, baina produkzio ahalmena, eta funtzionala izatea ere izango da helburu nagusia. Talde lana, eta produkzio handia sortzeko gaitasun eta antolaketa.

Ekarritako objektuei buruz gauza asko ikasitakoan, talde katelana antolatu eta garatuko duzue. Baina ez zarete hutsetik hasiko, beste pertsona batzuek egindako lana jarraituko baituzue oinarritzat.
Zuek sortutako objektuak, herriko denden ikusleihoetan zintzilikatuta, apaingarri izango dira, hau da helburua, eta, amaitutakoan, sortutako objektuak txukun antolatu, kalterik gabe dendetara heltzeko eta, zergatik ez, baita beste pertsona batzuei ere zuen proiektuen berri jakinaraztea, eta ikusteko grina hedatzea.

Objektuen produkzioari buruz, pausuz pausu egin beharreko lana ezagutzeko, hasteko, bideo labur batzu ikusiko dituzue, eta, hori eginda, lanarekin hasiko zarete. Taldeka jarriko zarete, lehen saioan beharrezko materiala guztia moztu, margotu eta prestatzeko. Bigarren saioan eraikitze lana egiteko.

Produkzio taldeetan antolatu beharko zarete, kontutan hartuz bakoitzaren baliabide eta trebetasunak. Batzuk marraztu, neurriak hartu, moztu, margotu, eta dauden lan atalak ondo sailkatu beharko dituzue.

Azalpen bideoak ikusi ondoren, ikasitakoa oinarri hartuta, galdetegi honi erantzungo diozue:
-Zer ikusi duzue? Ze objektu dira? -Ezagutzen al zenituen ikusi dituzuen lau objektuak? Bai Ez Batzuk -Ikusitako lau objektuen inguruko informazioa bilatu eta identifikatu zein kultura eta herrialdeekin daukan harremana. -Gauza izango zinatekete horrelako zerbait egiteko? Nola antolatuko zarete, ahal duzuen produkzio handiena egiteko ?

1.2. Aurreratu beharreko lanak.

Helburua ulertuz talde lanaren antolakuntza eta partehartzea.

Antolatu eta identifikatu zein diren lehen saio honetan aurreratu beharreko lanak.

Margotu beharrekoak, lehortu behar direnez hauekin hasi beharko zarete. Faroltxoen kartulinak moztu, arabiarren urre koloreko testura margotu, eguzki lorearen kartulinak moztu, tapoiak horiz edo laranjez margotu, edo artilearekin estali, alebrijearen zatiak margotu, …

2. JARDUERA

2.1. Kate lanaren antolaketa

Lehen jardueran aurreratutako lanarekin, objektuak muntatzen hasi, eta bolumenak eta formak lortu. Akordatu zintzilik jartzeko soka ere ipini beharko zaiela.

2.2. Arte lanaren antolaketa eta banaketa

Behin lana amaituta, objektuak bere helburua bete dezaten kutxetan ondo antolatu eta sailkatu beharko dira, dendetara osorik heltzea da helburua.

AMAITZEKO_____

Amaitzeko, Kultura bakoitzetik erakarritako ikasketei buruz hitzegingo duzue, eta zuen lanak denden ikus leihoetan ikusgai izango direnez, ezagunak eta senideak animatu ditzazkezue egindako lanak ikustera.

Gure lanaren ostean gogoeta egingo dugu

OROKORTZE- ETA TRANSFERENTZIA-FASEA
Ikasitakoa aplikatuta

Kultur anitzeko objektuetan eta hauen eraikuntzan oinarrituta, kultur anitzeko objektuak sortzeko nola lan egin ikasi duzue, eta, horrez gain, sortutako elementu horiek jatorri eta esanahi jakin bat dutela eta jarritako helburuari erantzun behar diotela ere ikasi duzue.

Objektuei ematen diegun akabera, egindako ariketarekin ikusi dugun bezela, kultur kutsu handia izan dezake, beraz kontutan izango dugu gure lanaren identitatea, egoki aurkezten, eskatutako helburuari erantzunez.

EGINDAKO ARIKETAREKIN

Zer ikasi dudan		
Lana nola egin zaidan		
Erraza	Normala	Zaia
Gustura gelditu naiz egindako lanen emaitzarekin		
Asko	Gutxi	Batere ez

Ikasitakoa baliagarri zait egin beharreko beste lan batzuetan aplikatzeko		
Asko	Gutxi	Batere ez

..oo-00-O-00-oo..

ESKERRIK ASKO!

ERRENTERIA UDALA

SORKI 2023 - Itziar Bandres Saldias